

## ADOREA NOLAKOA, ZORTEA ERE HALAKOA

Karlos del Olmo

*Jatorrizko izenburua: La Buena Suerte*

*Egileak: Rovira&Trías de Bes*

*Itzultzailea: Eskarne Mujika Gallastegi*

*Alberdania*

2005

Nork esan du euskaraz ez dela *bestseller*rik itzultzen eta argitaratzen? Izan ere, azken urteotan, nagusientzako literaturaren alorrean loratu izan dira banaka batzuk —haur eta gazte literaturan aspaldian ebakitzen hasitako bidetik— baina, entseguari edo pentsamenduari dagokienez, ez da halako ohikoa izaten.

Baten batek honako eskuliburu moduko honen edukiari pentsamendu ahul edo arina iritziko dio, segurutik. Baina nork bere gustuak eta nori bere zaletasun eta ahalmenen arabera. Beharbada, harrigarri samar gerta daiteke euskaraz topatzea dagoeneko munduko 35 bat hizkuntzara itzulitako *self-help* saileko liburu praktiko izan gurako hau, euskal irakurleak liburua erosi duten milioi eta seihun lagunentzako tropelean ere egotea. Kritika baten batek, exekutiboentzako Harry Potter arin eta mehe halako bat dela ere bota du.

Eskarne Mujikak alegi moderno baten tankeradun testua euskaraz jarri du literaturatik batere urrun ez dagoen irakasbide antzeko hau. Izan ote daiteke eskuliburu hutsa zaldunak, baso sorginduak, gnomoak, zuhaitz hiztunak eta hirusta magikoak aipatzen dituen marrazkidun (!) saio bat?

Eta nondik nora exekutiboentzako ESADE <http://www.esade.es/home.php> eskola ospetsuko irakasle eta aholkularitza enpresa bateko bazkide diren bi "marrazok" arrakasta lortzeko bide artezaren gaineko ipuinak idaztea eta lau haizeetara aholkuon aldarri egiten jardutea?

Itzulpenari dagokionez, erraz irakurtzen den liburua da, jatorrizkoaren joskera bihurri samarra bada ere, erlatibozko egiturei dagokienez. Eta, eroso irakurriko dute, gainera, txikiak eta nagusiak. Liburuak irakaspen edo gogo gai sakonen bat edo beste eskaintzen duelako, erraz azaleko mozorroa gorabehera.

Itzultzaileak jatorrizko izenburu txikia *Ongizatea iristeko giltzarriak* eman digu. Izan ere, gizaki gehienak jo eta su lehiatzen dira oparotasuna, onura, arrakasta, zoriona edo goraldia lortu guran. Zientzialarien antzera, arrakastaren giltzarriak zedarrizten eta sistematizatzen ahalegindu dira, baita denon eskuragarri jartzen ere. Muin-muinean zer diote egileek? Mendebaldeko kultura kristauan sakon erroturik dagoen mezua: "Goizaldean lo dagoen azeriak ez du lumarik ahoan". Bestela esanda, ez espero Jaungoikoaren laguntzarik zuk zeure buruari laguntzen ez badiozu. Guztia, sugearen atorraren antzera, larru berriturik. Axularrek aspaldian moldiztegiko letretan eman zigunez, ez da komeni luzamendutan ibiltzea, geroko gerotan jardutea.

Guztiarekin ere, beti legez, geure buruari galdetu behar genioke ea zer ikusi dioten liburuari munduko hainbat irakurlek. Txiste erraza bertatik bertara dator ahora, jakina: irakurle horiek guztiak dagoeneko arrakastadun bihurtuta ote daude? Honako lerro hauek paratu ditudan honek esne mamitan bizitzea lortu du? Argitaletxeak berak? Zalantzako kontua da. Ezin ukatuzkoa da, guztiarekin ere, egileek itzal itzela lortu dutela. Txarren-txarrenean, liburuak ikasgai inportante bat daroa: arrakastaren giltzarrietako bat honelako liburu bat idaztean datza. Urre gorriaren prezioan saldutako beruna?

Japoniar liburu saltzaileen elkarteak Shinpu saria eman dio, urtean arrakastarik handiena lortutako liburua izan zelako. Japoniako liburu saririk ospetsuena omen. Itxuraz, jatorriz gaztelaniaz idatzitako liburu gutxik lortu du horrelako sonarik. Seguru asko, horren guztiaren azpian garaiotako gaitzetako bat ere badatza, izan ere, zorientasuna

arrakastarekin lotzea. Eta horrek ez luke akatsik arrakasta ongizate materialari baino lotuko ez bagenio. Baina halako usain susmagarri bat dario honi guztiari. Alegia, erlijioek eta filosofiek menderik mende aldarri egin dutenaz harantzagoko zer edo zer ote dakarren. Jakina, liburu honen defendatzaile sutsuren batek esan duen moduan, kontraktik ere pentsa genezake, alegia, populua gida espirituzkoaren gose dela. Baina profeta berrizat bi exekutibo izatea ere!

Guztiarekin ere, ez da ezari-ezarian igarotzen utzi beharreko gertaera. Euskaraz ere helpidean jarri digutelako. Nahiz eta, gauden garaian gaudela, itzultzailearen izena azalean aipatu ez duten. Itzultzailearen eskubideen aldeko borroka luze jo dezake, baina gure "berridazketaren" garrantzia etengabe aldarrikatzen itaun beharrean gaude.